



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua  
Servicio de Viticultura y Enología

## **TXOSTENA: ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERA, 2022/08/09**

Udako bigarren beroaldia gaindituta, uztaileko azken egunetako tenperaturak sasoiko ohikoak izan ziren, batez ere gauekoak. Horri esker, mahastiak nolabaiteko normaltasunez jarraitu du zikloan. Abuztuan beroak itzuli dira, baina landarea, egungo kolore aldaketa lortuta, tenperatura altuei hobeto eusteko gai da.

Abuztuaren 3tik aurrera, eguraldiaren ezegonkortasunak ekaitzak eragin ditu Arabako Errioxan, eta horiek ura modu irregularrean utzi dute eskualdeko hainbat tokitan. Guztira, kasurik onenean, 20 litro baino gutxiago izan dira, eta hostoa ia ez dute freskatu eta lurrean sartu. Beraz, mahastiak, maiatzetik arrastatzen dugun lehorteak zigortuta, oso ur gutxi hartu du.

Dagoeneko badira hiru hilabete jarraian lehorte dagoena, aldi horretan ekaitzaren batek (azkena, bart, abuztuaren 9an) baino arindu ez duena; izan ere, baieztatu da azken urteetako lehorrena dela.

Datu positibo gisa, ikusten da mahastiak erresistentzia handia duela bizi dugun bezalako egoera zailei aurre egiteko. Mahastia muturreko bero baldintzetara eta urik ezera egokitzen da, metabolismoa minimizatuz. Aldi begetatiboan urik ez dagoenean, fotosintesia, arnasketa eta transpirazioa murriztu egiten dira, zikloa moteldu egiten da, hostoa galdu eta alearen tamaina txikitu, urak bizi organoetara migratzen baitu. Zorionez, orain arte ez da egiaztatu mahastietan lehorteak eragindako mahatsondo baxarik egon denik, landaketa berrietan isolatutako landareak izan ezik; izan ere, horiek ez dute oraindik sustrairik garatuta eta ez dute gutxieneko ureztatze euskarririk.

Abuztuko garai honetan, Arabako Errioxan bi ikuspegi oso desberdin ditugu, ureztatu ahal izan den ala ez kontuan hartuta. Lehorreko mahasti gehienak

kolore aldaketaren egoera fenologikoan daude (M2), baina bilakaera irregularra dute paraje, mahasti eta lukuen arabera; baia txikia dute eta heltzeko zailtasunak, eta errendimendua eta kalitatea baldintzatuko dituzte mahats bilketarako falta diren egunen eguraldiek. Ureztatutako mahastiak oso egoera onean daude, ekoizpena arazorik gabe iritsiko da aurreikusitako errendimenduetara, eta gutxienez ohikoa dena baino 10 egun lehenago izango da. Prozesua oso azkar doa ureztatu ahal izan duten horientzat, egutegi fenologikoa pixka bat aurreratuta baitago eta kolore aldaketa oso aurreratuta. Lur ureztatueta, beraz, uste da mahats bilketa lehenago izango dela, errendimenduak aurreikusitako gehienei doituko zaizkiela, eta kalitate handia izango dela.

Osasunari dagokionez, lehorreko nahiz ureztatutako mahastiek osasun bikaina dute.

Aiarako Haranean, Arabako txakolinaren eremua bera, uztailaren amaieran eta abuztuaren lehen egunetan izandako beroak eta ur eskasiak -euri ziri gutxi batzuk eta euririk gabeko ekaitzak kenduta- zikloaren garapena eta alearen haztea moteltzen jarraitzen dute. Baiak oso txiki daude, eta kolore aldaketa oraindik ez da iritsi, ezta barietate goiztiarrenetarako ere: Chardonnay eta Riesling. Mahastiak erabateko kolore aldaketa lor dezan, Hondarribi Zuriari 10 egun baino gehiago geratzen zaizkio oraindik, eta hori kasurik onenean. Osasun arloan ere, txakolin mahastia egoera bikainean dago. Arabako Errioxako lehorreko aldean bezala, heltzearen bilakaera eta horren ondoriozko mahats bilketaren data oso baldintzatuta egongo dira hurrengo hiru edo lau aste hauen gorabeheretara.

Laburbilduz, lehortea nahasmenduak eragiten ari da Arabako Errioxako eta Aiara Haraneko lehorreko mahastietako mahats zikloaren bilakaeran, eta datozen asteetan euririk egiten ez badu, errendimenduak nabarmen murriztuko dira. Ureztatutako mahastiak oso egoera onean daude, eta gutxienez hamar egun lehenago daude azken urteetan mahats bilketa izan denaren aldean. Beraz, izan liteke irailaren lehen egunetan ikustea lehenengo mahats mordoak upategietan.

Guardia, 2022ko abuztuaren 9a

MAHASTIZAINITZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA

AFA-KO NEKAZARITZA SAILA